

1989-90 ikasturteaz geroztik irrati euskalduna daukagu Ermuan. Teodoro Zuazuako ikasleak dira, hain zuzen, beren eskolako lanak egunero ondetara ateratzen dituztenak. Atzean, euskara departamentuko irakasleak. Heuren ahaleginei esker, hasieran proiektua besterik ez zena, gaur egun errealitate bihurtu da.

Sorgin Irratia FM

103-104. *Irratia euskaraz*

Teodoro Zuazua ikastetxean

«Eskolara zetozen umeek ez zuten oso ondo euskaraz zertarako ikasi behar zuten ulertzen. Eskolatik kanpo oso zaila egiten zitzaien ume hauei hizkuntza hori entzutea. Ez zuten etxean heuren gurasoekin euskaraz hitzegiteko aukerarik. Kalean ere, erdal giroan murgilduta, ez zegoen entzuteko aukera handirik. Eskola nolabait herriaren ispilua izaten da eta honek eragin handia du zentroetan. Umeek ez zuten euskararekiko motibaziorik eta argi zegoen zera, gure lana eta helburua, ikasleentzako estimuloak bilatzea izan behar zela».

Honela hitzegiten digutenek Teodoro Zuazua ikastetxeko euskara departamentuko irakasleak dira. Drogeteniturrik, irratiaren berria eduki bezain laister, haiengana jo du egiten ari diren lana ezgutzeko eta zuei eskeintzeko.asmoz.

DROGETENITTURRI: Motibaziorako tresna moduan aurkeztu duzue irratia. Zer esan nahi du honek? Irratia muntatzeko arrazoia, hizkuntza lantzea izan dela?

SORGIN IRRATIA: Bai, puntu hau guztiz argi izan dugu hasieratik. Irratia ez dugu egin hein batean komunikazioaren beharra delako, jendeari geuron kezak azaldu nahi ditugulako; guretzat euskara lantzerakoan, irratia tresna erabilgarria da eta horregatik sartu gara proiektu honetan Bestalde batetik, eskolan euskal giroa, komunikazioa, sortzeko erabiltzen dugu, sarrera, irteera eta jolas orduetan euskal musikaren nagusitasuna irratiari esker igertzen baita.

D: Oso zaila al da irratia muntatzea? zer pauso jarraitu behar izan

duzue?

S.I.: Ez. Ez dugu uste irratia muntatzea oso zaila denik, baina argi dago ezagueraren tekniko minimo batzu edo oinarritzko batzu izan behar direla. Baina arazo handiagoak sor ditzake irratia euki ondoren eskolen errendimendu ateratzeak. Guk geure aldetik ikastaro ezberdinak egin ditugu hurrengo bi puntu hauek ondo lotzeko:

Lehenengoa ihaz Jaurlearitzako Hezkuntza Sailak antolatutakoa izan zen. Bertan irratiak eskeintzen dituen aukera pedagogikoak kalibratu ziren. Asteburuetan izan zen iakstaroa, eta bukatzerakoan, gure eskolarako esperientzia hau polita izan zitekeela uste izan genuen. Talde bat eratu zen proiektuari jaraipe-naemateko eta zenbait tresna erosteko diru laguntza eskatu genuen. Lortutako

Ez dugu uste irratia montatzea oso zaila denik, baina argi dago ezagueraren tekniko minimo edo oinarritzko batzuek izan behar direla.

S.I. : Oraingoan, Ziklo ertainetik gorako ikasleak bakarrik aritzen dira irrati lanean, hirugarren mailatik aurrera. Hirugarren mailakoak egunero dauzkagu antenan: goizez, 9.03tik 9.12 minutuetara eta arratsaldean, 2.03tik 2.10 era. Oso denbora txikia izan arren, kontutan hartzekoa da zera: antenan hamar minututan egoteak ordu beteko lana eskatzen duela, nahikoa arituak direnentzat. Guk bezperan lantzen dugu biharamunearan antenan mikrofonoaren aurrean eskeini

behar duguna. Ikasleak jo eta ke ibiltzen dira lanean, ahalik eta hoberen egin nahian. Testu bat irakurri behar dutenean etxera eramaten dute bertan saiotoak egiteko. Irratiaren bidez hitzegin behar dutenez, entonazio eta ahozkeraren garrantziak jabetu dira eta etxean praktikak egiten dituzte. Gelako baten urtebetetzea denean, abesti bat eskeintzen zaio eta esalditxo batzuek irakurtzen dira. Txistek ere asmatu egin dituzte, baita ondo zuzendu ere ahal den txukunen antenaratzeko.

200.000 pezetekin oinarritzko elementuak erosi genituen, hala nola, pletinak, platerak eta abar. Anplifikagailua eskolan zegoen baina ez geneukan emisora eroste adina diru. Durangoko PATera (Pedagogia Aholkularitza Taldea) jo genuen eta utzi ziguten falta zitzaigun emisorea. PATEk tekniko bat bidali zuen tresnen funtzionamendua azaltzeko. Berarekin bigarren ikastaroa egin genuen. Hamabostean behin elkartzten ginen eta piskanaka, tresneriaren funtzionamendua menperaturik, irratiaren lehengo saiotoak prestatu genituen.

D: Eta umeen harrera?

S.I.: Irratian lanik egin aurretik, programaketa bat asmatu genuen beren munduan sartzeko. Fitxa eta esperientzia batzuek bildu genituen: Iratia zer zen, nola sortu zen, nork asmatu zuen... Irratiaren ere ikerketatxo bat egin genuen telebistarekin konparatuz. Irratiak duen balio informatiboa, berriak orduero ematen dituelako, beste zerbait diferentetan aritzen egoteko ematen duen aukera zeren entzun besterik ez da egiten, herrialde pobreetan duen indarra... azkenik, Euskal Herriko hainbat irrati bisitatu genuen: Egin irratia, Euskadi Irratia eta Herri irratia. Kanpaina hau bukatu orduko, haurrak irrikitan zeuden lanean noiz hasiko.

D: Maila guztietako ikasleek hartzen al dute parte?



Mikrofonoa eta papera. Sorgin irratia martxan dago.



Antenen hamar minututan egoteak ordu beteko lana ematen du.

Eguraldia ere gure programaketaren parte garrantzitsua da. Eguneroko ikasleek eskolan daukagun zentru meteorologikoan datuak hartzen dituzte eta eguraldiaren berri ematen dute. Gure eskolan aspaldidanik kontrolatu dugu eguraldia, baina irratian esker ikasleek lan horri baliagarritasuna aurkitu diote, jendeari eguraldiari buruzko datuak eamtea, alegia. Gero, irratian hiztegi berezia erabili behar da eta hirugarren mailakoentzat zailak diren hitzak ondo ahozkatzeko saiaketa: adibidez, publiometroa.

D: Baina dena ez da eskolako lana izango, jolasen bat izango duzue...

S.I.: Noski. Hainbat asmakizun eta jo-

las ere badago gure programazioan; hauei esker, ETB ikustera umeak bultzatzen ditugu. Telebista pribatuaren eragina oso handia da eskolan eta umeek ordu asko irauten dute telebistaren aurrean. Guk ezin dugu egoera hau galerazi, baina gutxienez saiatuko gara aukeratzeko duten katea euskalduna izan dadila. Gure programazioan 'pertsonea ezkutua' bilatzea proposatzen dugu. Hau, aldizka, ETBn agertzen diren marrazki bizidunen pertsonaia izaten da eta umeek, pertsonaia zein den deskubritzeko, katea hau ikusten dute.

Azkenik, musika ipintzeaz gain, sortu ere sortu dugu. Eskolako umeak txirula

joten, ari dira ikasten eta noiz edo noiz egin dugu jaialdixoren bat irratian.

D: Lan interesgarriena hirugarren mailan egiten dena, eta gainerakoe-tan?

S.I.: Laugarren eta bostgarren mailatan bertsoak prestatzen dituzte eta tsi-teak asmatu. Eguneroko berriak emateaz ere arduratzen dira, gure informatiboak koordinatuz.

Goi zikloan lan gela dugu B eremuan eta bakoitzak hilean behin ordu erdiko irratia saioa prestatu behar du. Ostiralero, ordubietatik ordubi t'erdietara ateratzen dira antenen beraien saioan 'horoskopoa'.

Etixerako

tresnak

Elektrizitatea



ZABALA



Zubiaurre, 27 - Telf. 170917
ERMUA

BURDINDENDA

Opariak

Brikolagea